



Alex Sardui, Gatibu taldeko kantaria. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

infraganti

ALEX SARDUI

Euskal Herria «euritan dantzan» jarri ostean, hiru hilabete daramatza Bizkaiko Batzar Nagusietan EH Bilduko eledun gisa Alex Sardui (Gernika, 1966). Dagoeneko, kolore ezberdinekoen artean irribarreak piztea lortu du, orain gurako luke elkarrizketan sakontzea, irribarrea eta ametsak galdu barik, bihotz librez beteriko herri librea lortze aldera.

Ezaguna eta prezia-
tua musika esze-
nan (Exkixu talde-
arekin lehenik eta
orain Gatibure-
kin), Alex Sardui
gernikarraren ibilbidea ez da
soilik agertokietara mugatu, ez-
ta musika mundura ere. Ezagun
dugu daukan ahots bereziaga-
tik, mikrofonoaren aurrean mu-
gitzeko duen estilo propioaga-
tik, eta ikusi dugu ere telebistan
aurkezle gisa, kamerari berezko
duen saltsa eta piper puntuare-
kin natural-natural begira.

Hori guztia gutxi ez eta, orain,
politikagintzan aritzeko unea
helduta, ez du alde batera egin.
Maila pertsonalean ikasten ja-
rraitzeko bidea ematen dion es-
perientzia izanik eta Euskal He-
rri libre batekin amets egiten
duenez, EH Bilduk proposatu
eta ez dio ezetz esan proiektu
politiko horretan beste etorki-
zun bat eraikitzeko bidean esku
bat botatzeari.

Bizkaiko Batzar Nagusietako
pleno baten bezperan aurkitu
du Sardui GAUR8rekin hitz egi-
teko tarte. Iraganera itzuli gara

une batez Alex txikia eta nera-
bea ezagutzeko asmoz, eta kon-
tatu digu Gernikan jaio eta Ger-
nikan bertan hazi zela, eta
Muxika ondoko udalerrian iritsi
zela «heldutasunera». Orain
Fruizen bizi da familiarekin.

Ume eta gazte garaietara erre-
paratuta, bizitzak zuen erritmo
pausatuagoa etortzen zaio bu-
rura Sardui. Kontatzen duenez,
«ez zegoen orain besteko prisa-
rik, momentuan bizi zen, askoz
lasaiago». Bizitzeko era lasai ho-
rrek bazuen bere abantaila.
«Gauzak ikasteko» behar beste

denbora eskaintzen zuen bizi-
modu hark, «pazientzia apur ba-
tekin eta gertatzen zena barne-
ratzeko denborarekin». Eta garai
haiek beste ezaugarri bat zuten,
kalean bizi zen; «kalean total»,
nabarmetzen duenez. Nerabe-
tasuna heldu zenean ere «beti
deskubritzen» egotearen garaia
ezagutu zuen, dudei eta galderei
erantzuna bilatu beharrekoa.

Musika zaletasuna etxeko he-
rentzia da, ia-ia genetikoa. «En-
beitatarra naiz» dio irribarretsu,
etxean, familia giroan jasotako
kultura gogoan. Behin musika-
rekin hasita, geroago ezagutuko
zuen bete-betean rock-and-ro-
llarekiko zaletasuna, honakoa
ere «betidanik» sentitu duela
azaltzen badu ere. Exkixu talde-
arekin, entseatu eta rock-and-
rolla zuzenean dastatzeko auke-
ra paregabea heldu zitzaion.
Musikaren bidez zer komunika-
tu nahi duen galdetuta, gehiago
geratzen da entzuleak jasotzen
duen mezuarekin, eta horretan
argi dauka margolan baten au-
rrean pertsona bakoitzak ikus-
ten duena ezberdina izan daite-
keen moduan, ez daudela kanta
bat entzun eta ideia edo senti-
mendu berdin-berdinak jaso-

tzen dituzten bi lagun. Edozein modutan ere, gurako luke transmititzea «nahi izanez gero gauzak posible direla, eta urtebete-an agian ez direla helduko baina ekinak badaukala bere etekina».

EGUNEROKO HIZKUNTZA

Musikan, soinuak, letrak, estiloak, mugimenduak... eta hizkuntzak ere paper garrantzitsua jokatzen du. Euskara Sarduiaren ama-hizkuntza da. Txikitatik izan dituen bizipen eta harremanen hizkuntza naturala Gernika inguruko bizkaiera izanik, naturaltasun berberarekin eraman du euskalkiaren doinua mikrofonoaren aurrera. Bizkaieraz bizi eta sentitzen du, eta, beraz, kantatu ere hala egiten du. Dioenez, «taldean, era natural bezain errazean» izan da beti bizkaiera komunikazio hizkuntza, eta, beraz, kantatzeko orduan ere, bizkaieraz egiten dute.

Telebistan ibili zen garaia benetako eskola izan zela dio, baina erraza izan ez zela ere. Bere ustez, balioa eman behar zaio aurkezle lanari. Esperientzia hartatik ikasgai bat ere ateratu du: «lasai egoten» ikastea, eta edozein unetan pasadizo bat gertatzen bada arin erantzuteko tre-bezia lantzea.

Hori bai, musikatik eta telebistatik kanpo izan ditu bestelako lanak ere Sardui. Gogoratzen duen bezala, liburu bat idatzia du («Esan eta egin»), trokelgintzan aritu da, kopistegi batean, iturgintzan titulatu da, eta barraren atzean ere eskarmentua badu; ordu txikietan «psikologia aplikatua» ikasteko aukera izan duela dio brometan.

Politika munduan aritzeko jasotako proposamenaren aurrean ere ez zen kikildu. Neurri handi batean maila pertsonalean gauza berriak ikasteko gogoak bultzatu zuen baietza ematera, argi izanik Euskal Herria Bilduk «gauzak aldatzeko eta neurri batean konpontzeko» lan egiteko aukera eskaintzen ziola. Politika «estigmatizatuta» dagoen une honetan, «hitz egitea eta elkarri ulertzen saiatzea» dira Sardui praktikan ipini nahi dituen erronkak. Mundu hobeago batekin amets egiteko nahia eta



Musika ibilbide luzearen ostean, ordezkari politiko gisa estreinatu berri da Alex Sardui.

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Gauza serioak lortzeko barre eta amets egiten jakin behar den ustekoa da Sardui, eta bidea bera ere argi dauka herri izaten jarraitzeko: «independentzia, baina ez bakarrik politikoa»

Bere izaera polifazetikoaren erakusle, liburu bat idatzia du, trokelgintzan aritu da, kopistegi batean, iturgintzan titulatu da eta brometan «barraren atzean psikologia» ere egin duela dio

beharra ere ez ditu bazterrean utzi nahi. «Amets egin behar da, eta zergatik ez politikan?, planteatzen du. «Saiaizeak beti me-rezi du».

Ez dago erabat ados gizartearen gehiengoak politikaz paso egiten duela dioen pertzepzioarekin. Bere ustez, «politika askotan maitale txar baten modukoa da: ezin naiz egon zu barik baina zugaz bez». Nabarmentzen duenez, «askotan orokortu egiten da, baina ez dugu politikaz horrenbeste pasatzen. Jende asko dago egoera txarrean, lan mundua txarto dago, dirurik ez... eta krisialdi honetan politikak zerikusi handia izan du».

Pasa den martxoan ahaldu akta jaso zuen Gernikan, Bizkaiko Batzar Nagusietan. Alderdi ezberdinetako ahaldu irribarretsuak erakusten zituzten uneko irudiek eta Sarduiaren agur adeitsuaren berri eman zuten kronikek. Onartzen du gure protagonistak barre egitea bere «bizitzaren fundamentuetako bat» dela, eta gaineratzen du gauzak seriotasunez egin daitezkeela eta aldi berean barre egin. Barre egiteak bizitza «leuntzen» laguntzen du, «humanizatu egiten du», eta, «zortez, barrea ez zait falta niri». «Barre egiten duen jendearekin gauza serioez hitz egiten ere badakit», gaineratu du serio.

Kultura esparruko esperientzia eta egun politikagintzak emandako perspektiba oinarri, herri honek herri izaten jarraitzeko zer behar duen galdetu dio GAUR8k, eta atoan esan du: «Independentzia behar du, baina ez bakarrik politikoa, kultur independentzia, ideologikoa, elkarlanaren independentzia, maitasun independentzia, hizkuntz independentzia...». Eta honakoa gaineratu du: «falta zaigu bat izatea, eta bat garenean, askatasuna, independentzia pertsonala». Hain zuzen ere, arlo pertsonala bere izaera polifazetikoarekin nola uztartzen duen planteatuta, argi azaldu du, familia planifikazio bat ermaten saiatzen bada ere, «dedikazioa» bikotekidearena dela.

Nerea GOTI